

Nafarroan energia- autokontsumoa %200 hazi da 2020tik

GARA | IRUÑEA

Mikel Irujo Nafarroako Garapen Ekonomikoko sailburuak atzo adierazi zuenez, «Nafarroan autokontsumo energetikoa %200 hazi da 2020arekin alderatuta». Nafarroak 15 komunitate eratuta ditu, eta beste 17 prozesuan daude.

«Eraldaketaren ardatz nagusietako bat da», Irujoren arabera, eta Nafarroak bere erregulazioa aldatu du eraldaketaren sorrera bultzatzeko. Nafarroak espero du «2030erako autokontsumorako potentzia-gigawatta gainditu ahal izatea».

Joan Groizard IDAEko zuzendari nagusiak adierazi zuenez, «Nafarroa erreferentzia bat da balio-kate bidezko trantsizio energetikoa bultzatzeari dagokionez. Bagenekien gaitasun industrialagatik horrela zela, baina eredu aldaketatik ere bada, komunitate energetikoetan oinarritutako trantsizio askoz sozialago baterantz egiten ari garena».

